



gure lurriña

*Bio*lur
gure lurriña



AMORERIK EMAN GABE!!

Irautea eta etsitzea...ezker eta eskuin bezala kontrako esanahia izanda ere sarritan bata bestearen inguruan dabilzan hitzak. Aurten sarritan buruan bueltaka ibili ditudan hitzak eta udazkenean Onintza Enbeita eta Uxue Alberdiren eskutik Argiaren BTN podcastean garatu diren hitzak, berriz ere bueltan.

Urte benetan gogorra izaten ari da baratzaizaintzat eta frutan ere ez da samurra izan askorentzat. Eguraldiak behin eta berriz nahastu dizkigu lur giroak, landaketak, ereiketak... alferrik egindako lanak berez ere lanez gainezka egoten den bizimoduan. Batzuk betikoa dela pentsatuko dutela pasa zait burutik, baserritarrak beti kexaka gaudela eta inoiz ez gaudela gustora izaten ohio da askotan elkarriketa bukatzeko modua. Ez nuke esango bereziki kexatia naizenik eta urteen balorazioa egitean uzta batzuk ondo eta besteak erdizka edo gaizki joaten dira normalean eta onarekin geratzeko joera dugu askok baina aurten onak baterez edo oso gutxi izan dira baratzetan.

Udazkena sartu da eta eguneko argi orduak laburtzen doazen bezela baratzako lan orduak gutxitu eta formazio, topaketa eta abarretarako tarte hartzen dugu, berez saretuta gauden arren sarritan aurrez aurre lasai egoteko denbora hartzea ez da errexeta. Bakoitzaren esperientzia eta udaberri-udako landaketak egin eta bildu bitartean neguko saski, azoka eta banaketei eusteko errezeta edo estrategiak elkarbanatzea tokatzen da aurten. Hurrengo denboraldia hasiera berri bat bezala planteatu eta tartean ahalik eta ondoen eutsi eta irautea. Oraindik irauteko indarrak biltzen eta gordetzen gaude baina eguzki berriarekin ilusioa eta berriz ekiteko kili-kilia piztuko dira.

Tarte hontan egun grisak gairatzeko nik proposatzen dudana saldaren osagaiak: 1. sarea baliatu; elkartuta samurragoa da ta gogoa badago, irautea eta etsitzean inguruan pixkat filosofatu, 2. Aitzolek Biolurren 30 urtemugarako prestatu zuen bertsoa abestu eta 3. Des-kontrolen "Duintasunez euts" abestiaren lehen esaldia buklean jarri edo abesti osoa noberegianatu eta intentsitate altuan entzun eta abestu.

Mirian Arrizabalaga Badiola

LEHENDAKARIA
MIRIAM ARRIZABALAGA BADIOLA
BARATZAGINTZA,
DONIENE BERRI BASERRIA. ITZIAR

LEHENDAKARI ORDEA
AIZPEA IZAGIRRE BALDA
OKINTZA,
SOSOLA BASERRIA. EIBAR

IDAZKARIA
IORITZ IGARATAUNDI ARREGI
BARATZAGINTZA ETA ARTZANTZA,
SAKONA BASERRIA. AZPEITIA

DIRUZAINA
JUDIT GARCIA LLORENS
ABELTZANTZA ETA GAZTAGINTZA
ETXEBRRI GOIKOA, OLABERRIA

BATZORDEKIDEA
ASIER LIZARRALDE ARRILAGA
FRUTAGINTZA,
LIZAGASAR BASERRIA. ELGOIBAR

BATZORDEKIDEA
NERE ASPIAZU BASKARAN
BARATZAGINTZA,
ESKUBARATZ. BERGARA

BATZORDEKIDEA
IÑAKI INTXAUSTI ITURZAETA
BARATZAGINTZA ETA ABELTZANTZA,
MENDARTE BASERRIA. ZERAIN

BATZORDEKIDEA
LUR PAGOAGA ZALOÑA
ARTZANTZA ETA GAZTAGINTZA
ARANGUREN BASERRIA, ARRASATE.

BATZORDEKIDEA
ENEKO SOLANA OLABIDE
FRUTAGINTZA ETA OKINTZA,
HARIZTIZABAL BASERRIA. ITSASO



BARATZEZAIN TALDEA

BIODIBERTSITATE FUNTZIONALA: INTIA-KO SARTAGUDAKO ETXALDERA BISITA

2023an "Biodibertsitate funtzionala" landu genuen INTIAko Noelia Telletxearekin egindako formazio saioan. Bertatik atera zen Sartagudako baratzezaintzako etxalde esperimentalera bisita egiteko gogoia, azaldutakoak praktikan nola aplikatzen dituzten ikusteko. **2024ko maiatzean joan ginen Sartagudara, 18 baratzezainek osatutako taldean.** Bertan Salomon Sadabak, etxaldeko arduradunak, besoak zabalik hartu gintuen garatzen dabiltzan lana azaltzeko asmoz.



INTIA Nafarroako enpresa publikoa da; bertan lehen sektoreko esperimentazio eta aholkularitza lanak egiten dituzte. Beraien produktu nagusia jakintza lortzea eta zabaltzea da, nahiz eta Sartagudako etxaldean barazkiak ere saltzen dituzten.



Biodibertsitate maila altua izatea da beraien indar gunea; basa hesiak eta lore bandak asko landu dituzte eta sinetsita daude biodibertsitate elementuak landuz oreka eraginkorra lor daitekeela izurriteen kontrolean, elementu hauetan gordeko diren **berezko intsektu laguntzaileei** esker. Lan egiteko molde honek jakintza handiagoa eskatzen du, botanika eta entomologian bati-bat. Beraien entseguen oinarria, baratze sistemak tentsionatu eta biodibertsitate elementuek izurrite jakinen aurrean nola erantzuten duten ikustea da.

Tratamendu kimikoekin oso erraza da oreka hori haustea beraz, ekiditen dituzte. Izatekotan, xaboi potasikoa, laranja olio esentziala eta azaridaktina erabiltzen dituzte zorrientzat eta produktu ahalik eta espezifikoena bestelako izurriteentzat. Piretrinak ez dituzte erabiltzen, eragin oso negatiboa daukalako fauna laguntzailearengan, atzera pausu bat da.

Biodibertsitate elementu bezala basa hesiak, lore bandak eta bankerrak lantzen dituzte. Baita intsektu laguntzaileak askatzen dituzte behar badira. Hala ere, lore banda iraunkorrei gero eta garrantzi handiagoa ematen ari dira.



LORE BANDAK: Labore bat bezala lantzen diren **espezie anitzeko lore guneak dira eta biodibertsitatea gordetzea dute helburu.** Erabiltzen ez dituzten multi tuneletako ertzak beti lore bandekin mantentzen saiatzen dira (bazterrak, nabe arteko lerroak). Aire libreko sailetan ere lantzen dituzte, antolatuta dauzkaten azpisailetako ertzetan.

BARATZEZAIN TALDEA

LORE BANDEN EZAUGARRIAK

- **Iraunkorrak izatea.** Lore nahasteak denborarekin sinplifikatuz doaz eta berriztatzen joan behar dira, beti baten- bat martxan mantenduz. Lore bandak landaketa jakin batekin batera egitea ez dute gomendatzen, intsektuak instalatu bitartean babes gabe gelditzen delako laborea. Onena banda iraunkorrak egin eta mantentzea dela diote.
- **Lore asko eta ahalik eta anitzenak izatea,** urte guztian zehar loreak izatea. Zenbat eta kolore gehiagokoak, hobeto. Intsektuek bertan topatuko dituzte behar duten nektarra eta polena.
- **Ez da komeni altuegiak** izatea, laboreetan itzalik ez eragiteko.
- **Alisuma (*Lobularia maritima*) eta ilena (*Calendula officinalis*)** ezinbestekotzat dituzte, oso erakargarriak bai dira **intsektu laguntzaileentzat**. Lobularia-k sirfidoak eta Calendula-k **miridoak** erakartzen dituzte.

Miridoak (zimitz predatzaileak): oso interesgarriak dira, lepidoptero edo tximeleten beldarren kontrolerako balio dezakete (*Tuta absoluta*). Zorri txikiekin ere ausartzen dira. *Macrolophus pygmaeus* esaterako, oso polifagoa da. Gurean naturalki agertzen da. Helduek polena bakarrik jan dezakete. Erositako *Macrolophus*-ak askatzen ditugunean bi hilabete behar dituzte baratzerara moldatu eta ugaltzen hasteko. Bi hilabete babesik gabe izatea esan nahi du horrek. Beraz hobe da intsektuok aurrez negutegian izatea estadio guztietan eta neguan tabakoan edo ilenetan (*Calendula*) ondo babesten dira.

- **Intersemillas etxeko** lore nahasteak erabiltzen dituzte. "Barbecho florido" asko erabiltzen dute; 15 espezie ditu: tartean gramineoak, Facelia, Moricandia, mitxoleta, borraja, Calendula, Lobularia, Centaurea, hirusta zuria... 2 urteren buruan asko sinplifikatzen dela esan dute.
- Lore bandaren eraginkortasun eremuaz, diote aire librean **40 m-tik aurrera ez daukala eraginik**.



Haatik, lore banda hauek desabantailak ere badituzte:

- Negutegian gutxiago bada ere, aire librean azaleraren %15-20 bete dezakete, beraz onena landu ez daitezkeen lekuetan jartzea da.
- Mantenurako eskulan handia suposatzen dute.
- Bandak sinplifikatzen joaten dira urtetik urtera eta berritu egin behar dira. Intersemillaseko "Barbecho florido" nahastea erabili eta 2 urte pasa eta gero mitxoleta eta Sinapis alba mantentzen dira nagusiki.
- Laborearen familia berdineko loreak badaude, lore banda arriskutsua izan daiteke. Esaterako, brokoli landaketan agertzen ohi den zorri berdina du lore bandako Sinapsis arvensis landare gurutzadunak.

LORE BANDA KOLEKZIOA: Nahaste desberdinak eta landaketa garai desberdinak probatu dituzte partzeletan. Kolekzio honen helburu nagusia, denboran zehar lore banda hauek daukaten eboluzioa ikustea da, noiz dauden loretan, nola sinplifikatzen doazen. Banda hauen mantenurako behar den denbora ere aztertu nahi dute.

BARATZEZAIN TALDEA

ARAZO NAGUSIA, ZORRIEN KONTROLA

Negutegietan zorriekin dituzte arazorik handienak, baita armiarma gorriarekin eta zenbait tximeletarekin ere. Aire libreko sailetan ere zorriak maiz agertzen zaizkie. Zorriaren kontrolerako kontutan hartu beharreko oinarritzko gai nagusiak aipatu zituen:

- **Landareen elikadura-oreka:** ximaurre gehiegikeriak ekartzen duen nitrogeno piko baten ondoren zorriak agertuko dira. Egoera horri aurre egiteko prest egon behar du biodibertsitateak (udaberrian, udazkenean).
- **Belarren kontrola:** askotan bazterretako belarrak zorritz josita egon daitezke eta hauek, jaramonik egiten ez zaienez, kontrolatzen nekezagoak dira. Horregatik negutegia belarrez garbi mantentzen saiatzen dira.
- **Klimatologia:** tenperatura epelek eta eguraldi ilunak mesedetzen dute zorria. Momentu kritikoa batean, zorrien kontrola ona bada ere, klimatologiak alde batera edo bestera eraman dezake oreka biologikoa.

Negutegi barruko zorrien kontrolerako, lore bandak martxan izateaz gain, fruitu laboreetan, **sarritan kontrol biologikoa ere erabiltzen dute: *Aphidius*, *Aphelinus*, *Aphidoletes* liztor parasitoak askatzen dituzte.**



Bankerrak ere erabiltzen dituzte. Badaude landare batzuk zorri espezie propioak dituztenak eta hauek interesgarriak dira, laboreei ez bai diete eragiten eta fauna auxiliarra lanean jartzeko balio dezakete. Zerealek, txirtak eta *Centaureak* badute beraien zorri espezifikoa. **Banker hauen printzipioa, parasitatuta dauden zorritz jositako landare espezifiko hauek ekarri eta bazterretan landatzea da. Zorrien parasito diren liztortxoak ugaltzen joango dira eta gure laborean zorriak agertzen direnerako, lanerako prest egongo dira.**

Hauek guztiek ez badute lortzen zorria kontrolatzerik, tratamenduak probatzen dute; entsegu desberdinetan izandako esperientzia kontatu digute, zorriaren kontrolerako 3 aukera probatu ohi dituzte labore berean: 1) Tratamendu gabe, 2) Xaboi potasikoa (2 aldiz) eta urarekin, 3) Piretrina

Zenbait entsegutan, emaitzetan ikusi izan dute laboreek buelta eman izan diotela egoerari eta ekoizkortasun berdina eduki dutela tratamendu guztiek. Zorriarekin batzuetan gure lasaitasunerako tratatzen dugula aitortu zigun.

Guzti hauek ikasi genituen Sartagudan. Gure baratzetan probatzen hasi edo sakondu dezakegu eta zalantzarik bagenu, Sartagudara itzultzeko aukera daukagu!





BARATZEZAIN TALDEA

BARAZKIEN PREZIOEN BEHATOKIA

Baratzezainen urteko batzarrean, **prezioen inguruko lanketa** bat egiteko gogoaz aldu zen. Bazegoen barazkiak zein preziotan saltzen diren jakiteko jakin-mina. Urte asko igaro dira Biolurrek prezioen taula osatu zuenetik, eta, beraz, hura berrizteko beharra agertu zen. Horri heltzeko galdeketa bat bidali genien apirilean baratzezainei, eta, emaitza asko jaso ez diren arren, taula bat osatu dugu ateratako datuekin.

Osaturiko taula baratzezainei helarazi zaie. Bertan, **gaur egun barazkien gutxieneko nahiz gehieneko prezioak zein diren** aurkeztu zaie, baita jasotako emaitzekin ateratako batez besteko salneurria ere.

Bailara bakoitzean, prezio horiek aldakorrak izan dira, baina, datu asko jaso ez genituenenez, ez dugu aintzat hartu ñabardura hori, anonimotasuna gal ez zedin.

Gure borondatea orientaziorako lanabes bat berriztea izan da, ekoizle berrientzat baliagarria izango dena, eta jardunean gabiltzanontzat, interesgarria.

Horretaz gain, ikerketa hau **DUINA proiektuan egindako lanarekin** alderatu nahi izan dugu: batetik, 2021. urteko errealitatea eta egungoa alderatzeko, eta, bestetik, DUINA egitasmoak **baratzezainetan izan duen eragina bistaratzeko.**

Testuinguruan jartzeko, DUINA ekimena 2021. urtean 11 etxaldetan egin zen ikerketa bat da. Ikerketa horren helburua baratzezainen jarduna duintzea izan zen. Horretarako, hainbat lan eta ekimen eraman ziren aurrera, ikerketaren arloan, arlo teknikoan eta dibulgazioan.

Lan horri esker, 12 laboreren ekoizpen kostua ezagutu genuen. Hori lortzeko, baratzezainek beraien lanaren eta irabazi zein gastuen inguruko datu zehatzak bildu zituzten, eta haietan nahiz momentuan karta sozialak markatzen zuen gutxieneko soldatan oinarrituta (1.400€/hileko) kalkulatu ziren ekoizpen kostuak.

PREZIOEN TAULAK

Laboreak	2021eko prezioa b.b. (€/Kg)	Ekoizpen kostua DUINA 2021 (€/Kg)
Azenarioa	3,57	4,80
Brokolia	3,57	5,44
Ilarra	7,13	11,43
Kalabaza	2,55	2,33
Leka	4,08	12,65
Letxuga	1,02	1,14
Piperra (Gernika)	6,10	13,17
Piperra (Italiarra)	3,08	3,47
Porrua	4,08	5,38
Tipula	2,55	4,87
Tomatea	3,06	4,07
Zerba	3,06	2,32

Azken urteetan jazo den garestitzea kontuan hartuta, datuak konparatzeko, **DUINatik ateratako labore kostuari KPIren (IPC) igoera ezarri diogu. (2021-2024ra %13) (€/Kg)**

Laboreak	ekoizpen kostua + %13 KPI	2024ko prezioa b.b. (€/Kg)
Azenarioa	5,42	4,39
Brokolia	6,15	4,38
Ilarra	12,92	11,09
Kalabaza	2,63	2,48
Leka	14,29	6,53
Letxuga	1,29	1,14
Piperra (Gernika)	14,88	8,71
Piperra (Italiarra)	3,92	4,01
Porrua	6,08	4,99
Tipula	5,50	3,09
Tomatea	4,60	4,63
Zerba	2,62	3,34

BARATZEZAIN TALDEA

Datu horiek bistan izanik, esan liteke agerikoa dela baratzezainek beraien prezioetan aldaketak egin izana. **DUINA** ikerketa eta bizi dugun prezioen garestitzea izan daitezke arrazoietakoz. Baina, nolanahi ere, 2021ean baratzezainak bere ekoizpen kostua baino % 24,6 merkeago saltzen zituzten barazkiak; gaur egun, berriz, % 17,2 merkeago.

Jaso dugunaren arabera, **DUINAko** emaitzak baliagarriak izan zaizkie baratzezainei, beren burua hein baten ahalduz; nolabaiteko zilegitasuna sentitu dute azokan edota kalean beraien prezioak eta lana duintzeko. Dena den, agerian geratzen da, beste behin geratu ere, nekazariak barazkiak ekoizpen kostuaren azpitik saltzen jarraitzen dutela eta, hortaz, ildo beretik lanean jarraitu beharko dugula.

Hala ere, amaitu baino lehen, adierazi nahi genuke ez zaigula nekazarien ardura iruditzen ekoizpen kostuen eta salneurrien arteko aldea nahiz arrakala beren gain hartzea; era berean, esango genuke ez dagokiela kontsumitzaileei ere.

Hori hala izanik, esan genezake erakundeek izan dezaketela zeresanik horretan guztian. **Helduko al da eguna, zeinean erakundeek zerbitzu ekosistemikoak ordainduko dizkieten nekazariari eta, horrenbestez, kostu zein salneurrien arteko arrakala nola edo hala estutzen lagunduko dien?**

Egindako lan berri hau baratzezaintzat baliagarria izango delakoan gaude. **Animo eta eutsi atxurrari!!**



EKOIZPEN DUINA KONTSUMO HERRIKOA MATERIAL DIGITALA

Duina ikerketaren emaitzak 2022ko Irailean aurkeztu genituen. Plazaz plaza kontsumo kooperatiben eskutik ondorioak jendarteratzen ibili ginen eta oraindik ere bagabiltza ikerketaren ondorioak plazaratzen.

2023 urtean, Ekoizpen Duina Kontsumo Herrikoa "sukaldean kontu kontari" paperezko material didaktikoa eta ikus-entzunezko 4 saio sortu genituen eta eskoletara, etxeetara...garaian garaiko laboreekin egindako errezeta goxoen baitan ikerketako emaitzak eta aldarriak eraman ditugu.

Bidean DUINAK egin ditu hainbat urrats, eta eragin ere eragin du, hainbat neurri sortzeko baliagarri izan baita; Debagoieneko ortulaguntza, eskola komunitaterako formazio bisitetarako gida, negutegiko seguroen laguntza igoera eta beste hainbat arrasto.

Orain "sukaldean kontu kontari" material didaktikoa digitalizatuta gure web gunean izango duzue. Bertan gaztetxoekin jolasteko ariketak daude, laboreen kostuak eta prezioak ezagutzeko, errezeten balioa kalkulatzeko, eta beste hainbat eta hainbat kontuz jarduteko aukera sortzen du.

Goxo, garaiko eta osasuntsu jan dezagun!



Ondorengo QR-a eskaneatuz materiala lortu dezakezu



ABELTZAIN TALDEA

MINGAIN URDINA

Aurreko Gure Lurriñan **Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoaren (GHE)** berri eman genuen, eta **aurten, zoritxarrez, mingain urdinaren inguruan hitz egitea tokatzen zaigu.**

Ez da gaixotasun ezezaguna abeltzain gehienentzat, azken fokua Aian deklaratu baitzen duela bost urte; eta orain dela gutxi arte, gaitzaren aurkako txertoa jartzen ibili gara.

Iberiar penintsulan lehen aldiz **agertu zenetik gaixotasunak eztabaida handia sortu izan du;** izan ere, ardiak mingain urdinaren eraginez hiltzen ikusi dituzten abeltzainak txertaketaren alde daude, eta lehen txertaketan ondorioz animaliak galdu edo abortuak izan zituztenak, berriz, kontra azaldu dira.

Joan den **urriaren 30ean**, Gipuzkoako Foru Aldundiak **foku bat deklaratu** zuen Oiartzunen, eta legeriak ezartzen duena jarraituz, animalien mugimenduak mugatu eta larrialdiko txertaketarekin hasi zen.



Egoera horren aurrean, **Biolurreko abeltzainak gaixotasunari buruzko bilera monografikoa egin dugu.** Bertan, gaitzak berak eta txertatzeak ala ez txertatzeak eragin ditzaketen ondorioei buruz hausnartu dugu.

Gure ustez gauden egoeran ezin da jarrera zurrun bat hartu, eta txertoa jartzea edo ez, norberaren erabakia izan behar da, bere artaldearen egoera kontuan hartuta. Hala ere, edozein kasutan, **erabakia ondo hartu ahal izateko, gaitza eta txertoaren inguruko informazio guztia izatea beharrezkotzat jotzen dugu.**

GAIXOTASUN BIRIKOA DA

Mingain urdinak hausnarkari guztiei eragiten die, etxekoei zein basatiei, baina, normalean, ardiek garatzen dituzte sintomak, eta artaldeek jasaten dituzte gaixotasunaren sarraskirik handienak.

GHE-aren kasuan bezala, **culicoides familiako eltxo batek transmititutako gaixotasun birikoa da.** Oro har, infekzioak udazkenean agertzen dira. Izan ere, eltxo emeak arrautzak jarri ahal izateko odola xurgatu behar du eta **temperatura 7°C-tik jaisten denean** hegan egiteari uzten diotenez, **bere erloju biologikoak lan egiteko sasoiaren azken txanpa dela esaten dio.** Hori dela eta **ziztatzen du gehien udazkenean, gaitzaren transmisioa ahalbidetuz.**



Animalia bat infektatu ondoren **10 bat egun pasatzen dira sintomak garatu arte.** Era askotariko sintomak izan daitezke, eta heriotza ere eragin dezakete.

Horren adibiderik argiena da gaitzari berari izena ematen diona: **mihia handitzen da, eta urdin (zianotikoa) jarritz gero, animaliak berez arnasteari eta jateari uzten dio.**

ABELTZAIN TALDEA



Gaur egun, eltxoaren ziztada saihesteko parasitoen aurkako botikak erabil daitezkeen arren, **prebentzio-neurririk eraginkorrena txertoa da**. Hala ere, txerto guztiek bezala, botikaren **ezaugarriak kontuan hartu behar dira sor ditzaketen kalteak gutxitzeko, eta gaixotasuna kontrolatzeko neurri eraginkorra izan dadin**.

Merkatuan dauden txertoen laborategiko fitxa teknikoaren arabera, txertoa eraginkorra egiten da eta **immunitatea sortzen du aplikatu eta 42 egunen buruan**. Gainera, kontuan izan behar da udazkena dela artalde gehienak erditzeaz dauden garaia, eta balizko sukarrak eta **txertaketa batek artaldean sortzen duen estresak abortuak eragin ditzaketela, artzaintzat galera ekonomiko handia suposatuz**.



Baina, orduan, **galdera batzuk sortzen zaizkigu**.

- Zergatik erabakitzen dute txertoa udazkenean jartzea?
- Zergatik txertatu orain jakinda handik eta egun gutxira temperatura jaitsi eta eltxoak hil egiten direla hedapena murriztuz?
- Zergatik txertatu jakinda garai horretan ardiak ernai daudela eta txertoaren ondorio kaltegarriak izateko arrisku handiagoa dagoela?

Biolurreko abeltzainok informazio osatua jaso ondoren, heldu gara **mingain urdinaren gaitzari buruzko iritzi formatua** izatera.

Azaldutakoa azalduta, ez dugu ulertzen zertan oinarritzen diren teknikariak mingain urdinaren txertoa garai honetan jartzeko.

Gure iritziz ez dituzte kontuan hartzen gure artaldearen egoera eta maneia, ezta gaitz eta txertoaren ezaugarriak sikiera. Derrigorrezko txertaketa kanpaina abiatzen dute *larrialdi* egoera baten aurrean, zalantzarik ez dute txertoa jartzean, izan ditzakeen ondorioak kontuan hartu gabe eta eraginkortasuna oso zalantzazkoa izanik.

Ez gaude txertaketaren aurka, baina uste dugu beharrezkoa dela begirada zabalago bat izatea, gaixotasunaren eta artaldearen alderdi guztiak kontuan hartuko dituen, eta prebentzio-neurri egokia bermatzeko moduan aplikatuko dena, gaixotasunaren arrisku-garaia aurretik, eta ahalik eta ondorio gutxien eragingo duena.

Abeltzain taldetik gure iritzia atal honetan idazteaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiari gutun baten bitartez igorriko diogu, hartu beharreko neurriak erabakitzeko elkarlanerako bideak ireki eta lanerako gure prestutasuna adieraziz.

ABELTZAIN TALDEA

ESNE KALITATEAN FORMAKUNTZA

Azken bi urte hauetan gaztaren higieneari, gaztagintzari eta AKPKA (*arriskuen eta kontrolerako puntu kritikoen analisia*) eta sistemei buruzko prestakuntzak jaso ditugu, hala ere, jakina da **kalitatezko gazta on eta seguru bat egiteko, garrantzitsuena lehengai on bat izatea dela.**

Hori kontuan hartuta, joan den apirilean, larre-esnearen ezaugarriei buruzko **prestakuntza** jaso genuen, hau da, batez ere **belar berdea edo bazka jaten duten animalien esnearen ezaugarrien ingurukoa.**



Esne mota honek kalitate handia du, batez ere sistema intentsiboan elikatutako behi eta ardien esnearekin alderatuta.

Ezaugarri garrantzitsuenak hauk izango lirateke: gantz eta lipido profil aberatsa, hala nola omega-3 serieko gantz-azidoak, eta bitamina eta antioxidatzaile maila altuak, osasunarentzat onuragarriak direnak.

Edukian prestakuntza astuna izan bazen ere, tresna dezente eman zizkigun gure produktuei balioa emateko eta nutrizio-korrante berrien aurrean defendatu ahal izateko.

Bestalde, elaborazio-zentroetan lehengai gisa erabiliko den esnearen kalitatea baloratzeko orduan, badira beste parametro batzuk kalitate higienikoa adierazten dutenak, eta oso garrantzitsuak direnak produktu seguruak ekoiztu ahal izateko.

Parametro horiek esne-tankeetan neurtzen dira hamabost egunean behin. **Abeltzaina eta elaboratzailea oso kontzientziatuta daude analisi horiekin eta ondo dakite parametro horietako batzuen desbiderazioak irakurtzen, euren produktuetan eragin handiak izan baititzakete.**

Desbiderazio horien zailtasunik handiena ordea, euren jatorri zehatza jakitea da, askotarikoak izan daitezkeelako, eta, batzuetan, abere bakar batek eragin dezakelako.

Horregatik guztiagatik **Biolur Kalifornian Mastitis Test** izeneko errape infekzioak diagnostikatzeko teknika azkarren erabilera **bultzatzen saiatzen ari da.** Animalia bakoitzaren esnea banaka baloratzeko erabiltzen den teknika da hau, eta zelula somatikoen (infekzioa) igoera detektatzen du.

Teknika honen bidez positibo ematen duten animalei bakterioak detektatzeko lagin indibidual bat hartuz gero, infekzioaren jatorri zehatza jakin daiteke, eta tratamendu eraginkorrak edo neurri zuzentzaileak gomendatu.



Abeltzainak animalia baten baten susmoa izanez gero, azkar egin dezakeen proba bat da. Horiek osatzeko, Biolurrek aholkularitza teknika eskaintzen du, artalde osoari proba egiteko eta animalia positibo bati esne indibidualaren laginak hartzeko.

Emaitzekin batera, txosten xehatuak egiten dira hobekuntza-aukerek, maneio- eta plangintza-praktikak barne.

Horrelako prestakuntzekin eta abeltzainak berak egin ditzakeen diagnostiko-tekniken erabilera bultzatzearekin, egindako produktu bakoitzaren ezagutza handitu eta ekoizleen autonomia garatu nahi dugu.

ABELTZAIN TALDEA

INSTALAKUNTZA BERRI BAT Ibon Intxaurrendieta, Lezo

Zergatik erabaki zenuen instalatzea?

Aspaldiko kontua da, betidanik izan dut buruan ekoizpen proiektu bat jartzeko aukera hori. 30 urtez egondu naiz mekanika lanetan eta aukera izan dudanean, 50 urterekin, bizitza lasaitu zaidanean, erabaki dut proiektuarekin aurrera egitea. Hasieratik ekologikoki egin nahi nuela argi nuen eta pixkanaka, lur bila hasi nintzen. Ni kaleko umea naiz, Lezokoa. Galdezka hasi nintzen eta Lezoko agroaldea aipatu zidaten, diputaziokoa da eta baratzeria dago bideratuta, baina galdezka gazlezka animalia txikiendako partzela bat zegoela esan zidaten, eta bueno... hor hasi zen dena...



Eta zergatik oiloekin?

Hegaztiak gustatzen zaizkit, ornitologiari buruzko formakuntza batzuk jaso ditut, baina bueno, arrautza ekoizpenari buruz idearik ez neukan. Tailerreko lana eta ekoizpena biak batera uztartzen hasi nintzen, 360 oiloekin. Hasieratik konturatu nintzen, horrela ez zela guztiz bideragarria eta azkenean apustua egin eta bigarren nabe bat jarri dut. Orain 720 oilorekin dedikazio osoa dut. Lehenengo urtea dugu horrela, eta gustura gaude produktua ondo ateratzen delako.



Ze zailtasun izan dituzu?

Ekoizpen proiektu batean sartzeko ez duzu kontatzen hainbeste burokrasia, papeleo egin behar duzunik... ez nuen imajinatzen holako ekoizpen txiki bat jartzeko hainbeste buelta eman behar zenik. Poliki poliki hasten zera eta azkenean lortzen duzu, informatuz eta laguntza eskatuz, baina burokraziarena izugarria da, gainera eskatzen dituzten gauza asko ere ez daude argi, niri inpresio hori eman dit. Alde horretatik oso nekatua nago. Gero egia da zuri gustatzen zaizun gauza bat egiten zaudela, produktua estimatua dago, bezeroak gustura ikusten dituzu eta horrek jarraitzea animatzen zaitu. Guk dena egiten dugu eskuz; arrautzak bildu, arrautzak markatu, banatu eta gehitzen diozunean hainbesteko papeleo, hainbesteko traba, motxila hori ekoizlean gainean jartzea ez da bidezkoa... erraztasun gehiago egongo balira jende gehiago animatuko zan ekoizpen proiektuak martxan jartzera.

Zertan lagundu dizu Biolurrek?

Biolurrek asko lagundu nau. Ni ez naiz baserri girokoa, dena berria izan da, oiloekin hasten zara, eta oso bakarrik sentitzen zara. Niri adibidez asko lagundu nau beste ekoizle batek, Jonek, eta hori gozada bat izan da. Biolurrek emandako laguntza teknikoa izugarria izan da ere, hortan laguntzea eskertzen da. Hasieran ez nuen ezagutzen Biolur, bueno ba beste elkarte batzuk bezala, igual entzunda, baina eman didan babesa izugarria izan da eta niretzako fitxaje oso importante baten bihurtu da.

OKIN TALDEA

ERROTARRIAK ZORROZTEN

Aurten ere Haristizabalen egindako okin proban taldean erabaki dugu gure ogiek izango duten nahasketa, eta pozik, aurtengoan ere Euskal Herriko gari, zekale eta espeltarekin egindakoak izango direlako.

Ogigintzan alearen besteko garrantzia du erabiltzen dugun irinak, eta irinaren kalitatea zaintzeko **harrizko errotan ehotzen dugu alea**. Gutako hainbat okinek errota dugu etxean eta bertan ehotutako irinarekin egiten ditugu gure ogiak.

Astrié da gehienok erabiltzen dugun errota mota, harrizko errotaria da, eta bere ezaugarria da ez duela alea apurtzen; aitzitik, zapaldu egiten du, gainera azala kentzeko, baina azpiko azala eta ernamuina mantentzen zaizkio, osasunarentzat hain onuragarriak diren mineral, bitamina eta zuntzarekin.

Dugun errotaren inguruan gehiago ikasteko helburuz, joan den **Urriaren bukaeran Errezigo Solaka baserrian bi eguneko jarduna izan genuen errotarriak zorroztera etorri ziren Alex eta Mathieu Laurenan-ekin.**

Nekazaritza ekologikorako errota mota hau egiten duten Bretaniako Moulin Astrié – Atelier País lantegiko kideak dira Alex eta Mathieu. Astrie errotak egiten dituzten harginek higatutako lau errota zorroztu eta puntuan jartzeaz gain ehoketari buruzko azalpen ugari eman zizkiguten.

Lan hauetan lanean ikusteko aukeraz gain garia zein beste zereal batzuen erredimenduaz ikasi ahal izan genuen; nola ondo aprobetxatu alearen elikagaiak ahalik eta zahi gogor gehien baztertuta irin fin bat lortzeko.

Alice eta Aloña itzulpen lanetan laguntzen aritu ziren eta Solakako lagunek etxean hartu zituzten harginak eta abegikor zaindu gintuzten atzera eta aurrera ibili ginenok.

Berriz ere jarri dugu balioan elkarlanaren abantaila eta sortzen duen kidetasuna.



OKIN TALDEA

JATSUN (BEHE NAFARROA) HoBBea proiektuaren I.TOPAKETA

Joan den maiatzaren 17an hamarnaka lagun bildu ginen Jatsun (Behe Nafarroan) ***“HoBBea, Lurraldeko ogi ekologikoa denontzat hobea da”*** proiektuaren lehen topaketan.

Gure Lurriñaren aurreko alean bildu genituen proiektuaren nondik norakoak, eta ekimen honek besteak beste, Biharko Lurraren Elkartea (BLE), Biolur eta Hazialdeko elkarteak lankidetzan sakontzeko balioko digula sinestuta gaude.

Proiektuak nekazari-okinaren figura indartu nahi du, eta baita lurraldeko ogi ekologikoaren kontsumoaren balioak eta onurak ezagutarazi, ekoizpen eta kontsumo-eredu arduratsuak sustatuz.

Jatsun egin genuen topaketaren helburua, HoBBea proiektua aurkeztu eta Euskal Herrian hazi herrikoien ezaugarritzearen inguruan egiten ari dena ezagutzea izan zen.

Bertan, ogiaren balio kateko eragile ezberdinak batu ginen; lurralde ezberdinetako laborariak, okinak, teknikariak eta hazien inguruko elkarte ezberdinetako hainbat pertsona.

Goizeko foroan gari barietateak hautatzeko orduan hartu beharreko irizpideez aritu ginen. Izan ere, analisi teknikoek haratago, lurraldeko biodibertsitateak eta ekoizpen ereduek badute bere lekua. Ikuspuntu ezberdinetatik lan egiten dugun kideak izanik, oso aberasgarria izan zen alor ezberdinetako ezagutzen trukaketa. Hala ere, ondorio komunitara heldu ginen **hazien garrantzia mahai gaineratuz eta tokian tokikoari erantzuteko beharraz**. Arratsaldean, Jean Michel Iribarneren gari landak bisitatu genituen, baita alea garbitzeko duten makinaria partekatua ikusi ere. Jon Harloucheteren etxaldean eman genion amaiera egunari, alea ehotzeko duen astrie errota ikusiz. Eguna giro ederrean joan zen!

Bigarren topaketak Abenduak 14an Eibarko Errebal plazan izan dira. Hurrengo alean jasoko ditugu hango berriak.



FRUTAZAIN TALDEA

MAHAIRAKO SAGAR LANDAKETA BERRI BAT

Jakina dugu gertuko salmentako eskaintza ekologikoan hutsunea daukagula mahairako frutaren kasuan. Eta hutsune honi erantzun nahian, azken aldian inguruko gazte batzuk mahairako sagar eta bestelako fruitu landaketak egitera animatzen ari dira. Eurretako bat Zeraingo Mendarte baserriko Jokin Intxausti da, gaztenek proiektuaren baitan landaketa berri bat abian jarri duena. Landaketa honen gora beherak konpartitzea eskatu diogu.

JOKIN INTXAUSTI ITURZAETA

Urte eta erdiko prozesu hau, entretenitu, gora-beheratsu, hainbat berri txarrekin tartean, eta lo askorik egin gabeko gauez betea izanagatik ere, guztia errepikatuko nuke, baita azken landarea landatzen ari nintzela, euria hasi izana ere.

Erabaki asko hartzeko eta ezjakintasuna nagusi izanik ere, gogobetez lanean aritzeko indarra izan dut.

Barazki ekoizpena aurrez ezaguna izanik, zerbait berria eskaini behar nion proiektuari. Orduan erabaki nuen, **mahaiko sagarrak (5.000 m²) eta kiwiak (2.000 m²) landatzea**. Mundu ezezaguna izanagatik ere, banekien nori eskatu laguntza. Hasieratik ikusi nuen sektore zirrargarri batean sartzen nintzela.

Produktu mota honen ekoizpenak zailtasun asko ditu, merkatuan zuzenean saltzea nagusiki. Merkatuak produktu garbi, distiratsu eta perfektuak nahi ditu, eta produktu bizi batzuez hitz egiten dugunez, ez da erraza.

Nire kasuan, **ekoizpen txiki bat ipintzea erabaki nuen, neuk zuzenean edo bitartekari oso gutxiarekin saltzea ahalbidetuko zidana**. Hori iruditzen zait produktuari balioa emateko ezaugarri nagusietako bat, plazara eraman eta erosleei erakustea zenbat kostatzen den ekoiztea.

Ekologikoan lana eginik, kimikoen erabilera gutxiengora eramatea da helburua. Baimenduak edukita ere, beste kontrol sistema batzuen beharra ere ikusi nuen (fauna auxiliarra) hau da, **izurriteen aurkako etsai naturalak erakartzea fruta-sail barrura**.



Ekoizpen sistemetan kokatuz, **kiwien kasuan, T-BAR sistema** ikusi nuen egokiena. Ezagutzen ez duenarentzat, **ardatz baten igotzen da guk erabakitako altuerara (kasu honetan 2 metro), ondoren bi aldeetara zabaltzen dira adar nagusiak, aldameneko besteengana iritsi arte eta hemendik irtengo dira kiwia emango dituzten adaxkak.**

Ekoizpenean sartzen 3-4 urte beharko ditu, mimo handiz eraman behar da hasierako urteetako lana. Formazio ona egiteak erraztuko digu etorkizuneko lanak. Nik Hayward barietateko kiwi berdea aukeratu nuen, eta polinizatzaile bezala *Tumori*.



FRUTAZAIN TALDEA

Sagarren kasua, konplexuagoa izan zen. Plazara zuzenean eramango ditudanez, **5 mota desberdin landatzea erabaki nuen.**

5.000 metro karratu inguruko saila izanda, ez neukan landare asko sartzeko lekurik. **Topaz** (300), **Bella Boskoop** (100), **Errezilla***(100), **Reineta gris de Canada** (100) eta **Smeralda** (100) landatu nituen (parentesi artean bakoitzeko arbola kopurua). Errezilak etxean txertatu behar izan nituen mintegian aurkitu ezinda ibili eta gero.



Erronkarik nagusienaren aurrean jarri nintzen, landareak lortzeko garaia. **Txikia izatearen arazoetako bat, azken unera arte ezin zigutela ziurtatu landareak izango genituenik.**

Zailtasunak izan arren lortu genuen landarea eskuratzea, bere 'Frantziako tourra' tarteko; euriari beldurrez, egun eta erdian **2.000 kilometro egin nituen autoan.** Izan ere **mintegi gero eta gutxiago daude, eta daudenak gero eta urrunago eta beste ekoizpen eskala handiagoa dutenak.**

Landareak, 'enanoak' dira, M9 patroian nahi nituen ekoizpen sistema 'muro frutala' aukeratu nuelako. Sagarrondo mota hau da egokiena sistema honetarako, tamainaz **3,5 metro** inguruko altuera hartzen dute eta kiwien kasuan bezala, hasierako urteetako formazioak markatuko du etorkizunean nola lan egiteko aukera egongo den.

Lan gehienen mekanizazioa izango da helburua, bai kimaketa bai eta belarrak moztea (ipurdia gehienbat).

Azken urteetan, **klima ematen ari zaigun buruhausteak** ikusirik, estruktura ere egokitu behar izan nuen. Hormigoizko posteak ipintzeaz gain, **kazkabarraren aurkako sarea ipintzea erabaki nuen.** Honekin, kazkabarretik babesteaz gain, eguzki kolpeetatik ere babestu ditut sagarrak eta kiwiak.

Aurrez esan bezala, ekologikoan egiten dut lan eta produktu kimikoen erabilera debekuak arazo mota hauei eman beharreko erantzuna aurrez pentsatu behar izan dut. Ondorioz, posteak altuagoak dira.

Hau da proiektu honen **berritasun nagusia, sagarren goiko aldea 3,5 metro inguruko altueran egongo da eta 4,2 metroko altuera ingurura egongo da posteen goiko aldea, gainetik sarea edukiko duelako.** Espero dut erabaki honek arazo asko ekiditen lagunduko didala.



Etorkizunari begira jarriz, **merkatuan esperantza daukat.** Sektorearen erronka nagusia **bezeroengana iristen jakitea da,** prezioak asko estutzen dizkiguten supermerkatuetatik irten eta kaleak berriz hartzea.

Honek, aurrez esan dudan moduan produktuari balioa emango dio, etiketak kendu eta gure produktuak defendatzea. Gu gara produktua, zenbat kostatzen den dakiguna eta gure maitasunez, kalitatea ematen diegunak. Nik uste dut lortuko dugula, **gogoratu guk ez badugu borroka hau aldarrikatzen, beste batzuek esango dituztela gauzak guregatik.**

FRUTAZAIN TALDEA

INTXAURRAREN EULIAREN KONTROLERAKO EGINDAKO LANAK

Gure Lurriñako azken aleetan azaldu dugun bezala, intxaurrondoak izaten dituen beste arazo batzuez gain, intxaur uztan kalte handiak eragiten ari den *Ragoletis completa* eulia gure artean daukagu. Euli honen kontrolean beste eragile batzuk ere pausuak eman nahian dabilta. Aurten Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (GFA) eta Goierri aldean sortu den baserritar talde batekin elkarlanean ibili gara intxaurrondoen bueltan udan zehar.

GFA-k bideratu dituen **entseguen helburu nagusia dipteroaren ezarpen maila ezagutu eta euliaren zikloaren jarraipen bat egitea** izan da, berau ondo ezagutze aldera. Aldi berean, GFA-ko entseguetan zein Goierriko taldean **euliaren kontrolerako** dauzkagun **aukerak probatu** nahi izan dira baserri desberdinetan, maneiu ekologikoan zein konbentzionalean.

Biolurretik proposatu ditugun maneiu ekologikorako kontrol aukerak biolurkideei proposatutako berberak izan dira:

- **Monitoreorako:** tranpa itsaskor horiak euliaren elikadura feromona espezifikoarekin (Econex etxekoak, 1 tranpa/Ha)
- **Euliaren kontrolerako:**
 - **Helduen harrapaketa masiboa** egitea, tranpa kromatiko eta feromona berdina baina, kopuru handian (Econex etxekoa, 50 tranpa/Ha)
 - **Tratamendua ematea**, azaleraren %25ean Spintor Ceborekin (antzerako eulien kontrolerako erabilia, intxaurrentzako oraindik baimendu gabea)

Biolurreko dozena erdi baserritan jarri dira monitoreo zein harrapaketa masiborako tranpak. Frutazain batek Spintor Ceborekin ere egin du tratamendu saiakera. Hiru baserrik GFA-ko entseguetan parte hartu dute.

Saiakera hauen ondorio garbirik ezin izan da atera. Izan ere, aurten fruitu osasuntsuen ehunekoa aurrekoa baino handiagoa izan da, baita jarraipenik gabeko eremuetan ere.

Hala ere, **ikusi eta ikasitako batzuk doaz ondoren:**

- Euliaren lehen harrapaketak uztaila hasierakoak izan badira ere, uztailaren amaierara arte ez da izurritearen benetako eklosioa gertatu. Irailean zehar mantendu da. Lehen kalteak abuztuaren erdialdean ikusi dira.
- Harrapaketa masiboko tranpekin patogeno karga murriztu delako ustea dago, eta fruitu osasuntsuen proportzioa hobetu. Hala ere, neurketa zorrotzagoa egin beharko litzateke eraginkortasuna baloratzeko.
- Tratamenduak ematekotan, sistematikoki egin beharko lirateke. Kontutan hartzekoa da tratamenduen aukera mugatua dela, zuhaitzen tamaina handia delako eta askotan ez dagoelako tratatzeko tresna egokirik.



Beraz, **lanean jarraitu beharko dugu euli honen kontrolerako estrategia bila**. Bitartean, agian naturak berak egingo du lan, izurrite berri honekiko oreka bila.

**Euliaren inguruko txosten teknikoak (Alfonso Gonzalez egindakoak) zein GFA-ko entseguen txostena bidaliko zaizkizue.*

BASOGINTZA

PRO SILVA BASOGINTZARI BURUZKO ESKULIBURUA EUSKARAZ ARGITARATU DA

*TESTUAK LIBURUKO HITZAURREAN JASOTAKOA BILTZEN DITU

Etenik gabeko estaldura mantentzen duen eta naturatik hurbilekoa den basogintza aurrera eramateko neurriak eta gomendioak biltzen duen eskuliburua ekainaren 20an aurkeztu zen Urkiolako parke naturaleko parketxean antolatutako ekitaldian.

Aurkeztutako eskuliburua Patrick Auquiere, Christine Sanchez eta Charles Debois, Valoniako Pro Silva erakundeko ordezkariak 2014an aurkeztutako *“La Sylviculture Pro Silva en Wallonie, Mesure et recommandations du DNF”* lanaren itzulpena da. Valonia eskualderako sortutako eskuliburu bat izan arren, Pro Silva erakundeko hainbat herrialdetako kideek aitortu izan diote erabilgarritasuna lan honi. Irlandako Pro Silvako kideek sustatutako ingleserako itzulpenak liburuak are gehiago hedatzea eragin du, eta **gaur-gaurkoz naturatik hurbileko basogintzari buruzko eskuliburu garrantzitsuenetarikoan bilakatu da European zehar**. Egitura simple bati jarraiki, liburuak Pro Silva erakundeak emandako gomendioetan oinarritutako basogintza eredia praktikan jarri ahal izateko pausoz-pausoko azalpenak ematen ditu; argazki eta irudi argiak erabiliz, praktikan konplexuak izan daitezkeen erabakiak modu ulerterrazean azalduz.



Euskarazko itzulpen hau, momentu erabakigarrian dator. Izan ere, XXI. mendearen hasiera klima larrialdiak eta beronengandik bereizezinak diren biodibertsitatearen krisiak, ziurgabetasunak eta aldaketa globalak baldintzaturik hasi da, eta Euskal Herriko basoak ere, ezbairik gabe, bete-betean ari dira pairatzen prozesu hauen eragina. Izan ere, izurrite eta gaixotasunen gorakadak, baso jardueraren bideragarritasun ekonomiko eskasak, baso langileen lan-baldintza kaxkarrak eta segurtasun ezak, baso unaden tamaina txikiak, eta batik bat gaur egungo gizarteak duen basoarekiko paradigma erlazionalak ataka larrian dute jarria basogintza. **Testuinguru honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da egoeraren konplexutasuna barne-bilduko duen kudeaketa eredia jorratzea.**

Basogintza arloko ikerlari gehientsuenek bat egiten dute Pro Silva basogintza elkarteak sustatutako kudeaketa ereduarekin, eta hainbatetan aipatzen dute ekosistema hauen ziurgabetasun mailari aurre egin ahal izateko, sistemen egokitzapen ahalmena bermatu beharra dagoela. Ahalmen honen oinarri-oinarrian kokatzen dira bioaniztasuna eta egitura konplexuak egituratzen dituzten prozesuak. Prozesu horiek dira, halaber, Pro Silvako basoen kudeaketarako baliatzen dituen tresna garrantzitsuenak. Eskuliburuaren helburua, baso-ekosistema zerbitzuen hobekuntza ardatz duen basogintza eredu honen oinarriak laburbiltzea da, baso-jabe, basogile zein hezitzaileek eskura izan dezaten.

Eskuliburuaren kopia fisikoa eskuratu nahi baldin baduzu idatzi info@tantai.eus-era, edo gerturatu Arrasateko Tantai Kooperatibaren bulegora edo Bergarako Biolurren bulegora.



KIDEEK ZER DIOGU

GORKA SASIETA BARRENETXEA BARATZEZAIN, FRUTAZAIN ETA ABELTZAINA.

URTEAGA-URKULEGI, ITSASO

Gure **etxaldea dibertsifikatua** da: merkatutzeko barazkiak, txekor haragia, frutak (baita lehorrak eta txikiak ere), zuku eta mermeladak ekoizten ditugu. 2011az geroztik gara Biolur-ko kide, eta urte horretan hasi ginen otarrak egiten Urretxu-Zumarragako kontsumo talderako, eta ordutik, fruta, mermelada eta zukuak Beasaingo **kontsumo taldean ere banatzen** ditugu.

Beizamako Uztaro eta Errezilgo Irure-txiki ezagutzeko aukera izan genuen orduan, eta egindako planifikazio ikastaroarekin batera oso baliagarria izan zitzaigun esperientzia hauek ezagutzea. Gerora ere, kooperazioan sinetsiz, gure ereduan gainerako kideekin elkarlana oinarri izan da **guretzat, saretzea eta gure txikian elkarrekin indar hartuz aurrera egitea. Gure motibazioa eta ereduaren oinarri. Ezin dugu ulertu bestela.**

Adibide bat jartzearen, baratzezainok, ahal dugun heinean, haziak ereiten dihardugu autonomian sakonduz, ezagutzen duzuen Alekaren bidez. **Landareen eskaerak ere partekatzen ditugu eta gure inguruko gazteenek ere planifikatzeko darabilzkigun irizpideak kontrastatu ahal dituzte, garraioak elkarbanatu, denok irabazi.** Beste hainbeste, haragi ekologikoaren inguruko behar-izanetan. 2014an sortu genuen Goiekoharagia, ekologikoan ari ginen Goierriko 4 haragi ekoizlek, momentu honetan 6 gara, eta gehiago izateko ilusioz.

Guzti honetarako **eskualdea eragin esparru baliagarria iruditzen zaigu**, hurbiletik, kasu, Goierrin sortu dugun **Biziola kooperatiba** hornitzeko, non eskualdeko baratzezainok ibilbide emankorra garatzen goazen, belaunaldi berriak ere prozesuaren baitan bidelagun ditugula. Gaurko eta etorkizunerantz ere lanean.

Eta **bada beste eragin esparru bat, oraindik ere gertuagokoa eta txikia: norberaren herria.**



Hauxe da gure esperientzia Itsason. Biolurreko kide ugariz, gurekin batera: Haritzizabal, Goitti, Mandubi-zar, Albitxu konbertsioan... eta hainbat ekintzaile beste arlo batzutan: Pott zeramika, Kimu diseinu jasangarria, IMZ arropa, Zutabiok... eramangarritasunari eta osasunari erreparatuz, egindako ibilbideak **Itsasoko Alegia auzoan Sindikatoa denda martxan** jartzera eraman gaitu, herritik abiatuta eta ingurura zabalduz. **Bertakoentzat bertako elikagai osasungarriak eta produktu jasangarriak.**

Proiektu berritzailea da, konfidantzan oinarritua, eta sistema digital baten bidez bazkide kideok erosketa modu autonomoan egitea ahalbidetzen duena, dendaririk egon gabe ere. **Larunbatetan kide boluntarioen eskutik, irekitzen da denda bazkide ez direnentzat ere, eta ederra da bertan sortzen den konplizitatea kontsumitzaile eta ekoizleen artean.**

Izan ere, izan kontsumo talde, denda edo dena delakoa, **konfiantza eremu bat sortzea eta iraunaraztea da gakoa**, eta horretarako ekoizle anitzen eta erabiltzaileen **konpromisoa ezinbestekoa da.**

Hainbat arlotan gizartearen norabidea hain zalantzazkoa den honetan, ez da erraza baikortasuna mantentzea, baina **konfidantza eremu hauek izan bitez etorkizunerako esperantza, txikitik, eta tokian tokiko ekimenetatik nekazaritzak eta gizartea modu jasangarrian elikatzeak merezi duen balioa berreskuratu dezan.**

KIDEEK ZER DIOGU

ELI TROJAOLA FRAISORO ESKOLAKO IRAKASLEA TOLOSA

Lerro hauek idazterakoan memoria piska bat egin dut nire bizitzan, Biolurkide nola eta noiztik naizen gogoratu nahian eta atzera-atzera eginez, nire arbasoetaraino iritsi naiz.

Ez naiz baserritarra, baina gertutik bizi izan dut baserria, nahiz beste aukera batzuk izan, “aittite eta amamak” baserritik bizitzeko hautua egin zutelako: baratza, esne behiak eta basoa uztartzen zituzten.

Nire **hautzaroan egun asko eman nituen baserrian** eta jolasteko infinitu eszenatoki eskaini zizkidan: irudimen adina eszenatoki.

Gerora, “Ingurumen Hezkuntza-ko” ikasketak egin nituen, baina hau izan zen **nire benetako Ingurumen Hezkuntza**, lurra errespetatu eta maitatzen erakutsi zidana, lurraren eskuzabaltasun zein gordintasunaz jabe arazi ninduen eta, berezki, gu ere lurra garela sentiarazi zidana.

Baserriari, gurasoen sentsibilitateari eta hortik aurrera nik nire **ibilbidean egindako hautu bakoitzari esker ezagutu nuen Biolur duela 20 bat urte**. Ordurako, ibilbide polita egina zeukan eta ideia faltarik ez zegoen (hau ez da aldatu, eta ez dadila aldatu!). Gauzak beste modu batean egin nahi zituzten baserritarren errealitatea ezagutu nuen, egunerokotasunean milaka oztoporekin topo egiten zutenena, baina denaren gainetik, beraiek egiten zutenean sinesten zuten baserritarren errealitatea eta mundu bizigarriago bat irudikatzen zutenena. **Ikasi nuen ze garrantzitsua zen talde lana honi aurre egiteko**. Eta ikasi nuen zenbat egin dezakeen kontsumitzaile batek honi eutsi ahal izateko.

Vandana Shiva-k dioten bezala, **3 aukera dauzkagu egunean iraultza egiteko: bat, gosaltzean; bi, bazkaltzean; hiru, afaltzean. Biolurkide izatea da beste aukera bat!!**



Gaur egun, **Fraisoroko eskolan nabil irakasle**. Lanbide heziketako eskola da Fraisoro, Nekazaritza eta abeltzaintza ikasketak eskaintzen dituen, besteak beste. Lanbide Heziketaren helburua, **langileak trebatzea da laneratzeko aukera gehiago izan dezaten**. Ikasle gazteak hurbiltzen zaizkigu bertara, baserriarekin lotura handia dutenetatik, etorkizunean zer egin nahi duten oso garbi ez daukatenetara.

Ez da erraza ekonomikoki bizimodua aurrera ateratzea hain zaila den bizibide honetara gazteak bideratzea. Ez da erraza aurretik lursailik ez duen batentzat lurra eskuratu eta lanean hastea. Ez da erraza dagoeneko baserrian dabilenak beste norbait kontratatuta izatea, lana soberan izanagatik ere. Baina hainbeste “ez da erraz”-en gainetik, beharrezkoa da. **Baserritarrak behar ditugu. Ekologiak behar du**. Eta irtenbidea ez da eredu mixto bat sustatzea, irtenbidea sektoreari merezi duen balorea ematea da, bertatik era duin batean bizi ahal izateko.

Daudenak zainduz eta etorkizunean ere egon daitezen lan eginez dabil Biolur. Hori sostengatzea da, beraz, **niretzat biolurkide izatea**. Eta hori dagoela sentitzeak ematen dio zentzua nire eguneroko lanari.

Beraz, **ESKERRIK ASKO BIOLUR!** Beste 20 urtetan ere hor izango nauzue!

AGROEKOLOGIA ALDARRIKATZEN

KONTSEILU BERRIA DUGU

Dakizuen bezala, **Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura ekologikoaren kontseiluak 4 urtero hauteskundeak egiten ditu**, eta elkarteek (Biolur..... elkarlanean egindako lanari esker, badugu hurrengo 4 urteko epealdirako (2023-2024) **talde berria**. Ekoizle eta elaboratzailez osatutako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkariak izango dira. **Ekoizleen** 4 ordezkarietatik bi kide Biolurkideak dira; **Garikoitz Aiesta Etzaniz** (Mandubiko abeltzaina) eta **Nekane Tomasena Elorza** (Lezoko baratzezaina). **Elaboratzaileen ordezkarietan ere berdin; Judit Garcia Llorens** (Olaberriko abeltzaina eta esneki ekoizlea), eta **Jose Ramon Arrieta Zialzeta "Exkerra"** (Antzuolako artzaina eta gaztagilea). Badaramate hilabete batzuk lanean, nekazaritza ekologikoa sendotzeko helburuz talde lana oinarri izanik.



ELIKAENEA AZOKA BERRITUA

Bergarako elikadura mahaia azken urteetan lanean dabilen eragile askoren gunea da. Elikadura burujabetza ardatz, ekoizpena eta kontsumoari begira jarri, hausnartu, eta elikadura kate osoan eragiteko asmoz lanean dabil eta proiektu eta egitasmo askoren sorburu izan da hainbat eragileren lan eta konpromezuari esker. Horietako bat Oxirondo azoka berritua gorpuztu duen **'Elikaenea' egitasmoa** da.

Bergarako EreindaJan-eko kideak burubelarri aritu dira lanean, urteetako esperientzia oinarri eta proiektu ezberdinak bisitatuz, **ekoizleak eta kontsumitzaileak bilduko dituen espazio erreferentea herrian sortzeko helburuz**.

Eguno errealitatetik abiatuta, agroekologia bideorri dute, eta nekazaritza ekologikoa indartu eta kontsumo eredua iraultzeko urrats bat gehiago delakoan gaude. Irailaz geroztik, denda, sukaldea zein askotariko ekimen eta zerbitzuak martxan daude. **Azoka gehiago biziberritzeko beste adibide egingarri bat.**



AGROEKOLOGIA ALDARRIKATZEN

TOKIXAN PROIEKTUA

Debagoienan hainbat eragile lantzen ari diren Tokixan proiektuan parte hartzen gabiltza Biolurretik ere.

Elikadura burujabetzarantz pausuak emate aldera, proiektuaren ildo nagusiak, jangela kolektiboen eraldaketa prozesua garatzea, ekoizpen proiektu kolektibo berriak martxan jartzea eta oro har, gizartearen sentsibilizazioa eta inplikazioa lantzea dira, eredu kooperatiboen bitartez.

Biolurretik Tokixan-eko Ekoizpen taldean parte hartzen gabiltza Eskubaratz eta Ereindajan Bergarako lagunekin batera. Baratzezaintza ekologikoan proiektu kolektibo berriak sortzea da helburua, ekoizpenerako lur egokiak eskuratu eta **erlebo aukera berriak** irudikatuz. Erreleborako eredia, bakarka barik, kolektiboan aztertzen ari gara, baratzezainei lan karga arindu eta ardurak konpartituko dituen kooperatiba baten baitan. Aurreratzen joan ahala joango gara zehaztasunak ematen.



EHKolektiboak 10 URTE

Asko dira agroekologian lanean dabiltzan eragile eta norbanakoak, baina badugu Euskal Herri osoko begiradarekin agroekologia lantzen eta bultzatzen duen baserritar eta herritarren kolektiboa, hori da EHKolektiboa. Agroekologiaren lanketa teoriko, eta batez ere praktikoa bultzatzen du; herrigintzaren ikuspegitik eta elkarlanetik.

Berme Sistema Partehartzailea identifikazioa erramienta garatu eta Baserriko Uzta egitasmo ederraren bitartez kultura eta laborantza ekologikoa uztartuz eredu agroekologikoa plazaratzen dabilen eragile garrantzitsua da EHKolektiboa.

Aurten 10 urte bete ditu eta zorionak! urte askotarako!



AGROEKOLOGIA ALDARRIKATZEN

ZERAINGO AZOKAK 30 URTE

Aurten Zeraingo azoka ekologikoak 30 urte egin ditu, Biolur elkarte bakoitza urte bat gazteagoa den ekimena. Elkarrekin sortu eta lehen egitasmo garrantzitsua azoka ekologikoa izan zen, nekazaritza ekologikoa jendarteratu eta plazetan eredu ezagutarazteko eta elikagaiak herrietan eskura jartzeko.

Ordutik gauzak aldatu dira, eta zorionez eskuragarriago ditugu elikagai ekologikoak, bidean sortzen joan diren ekodenda, kontsumo talde eta beste hainbat egitasmo esker. Bestalde, azokak beharrezkoak eta garrantzitsuak diren neurrian, ekimenak berak denon arteko hausnarketa eta biziberritzeko beharra dauka, herrietan aliatuak bilatuz eta guztion artean pentsatuz. Hasiak gara horretan.



HAZIAK LIBURUA

HAZIAK liburu zoragarria idatzi dute **Miguel Arribas "Kelo" eta Marc Badal-ek** Bizi Baratzea taldearen eskutik. Egileak beraiek izan badira ere, Markel Lizasoain itzultzaile lanetan aritu da, Maitane Gartziandia diseinatzaile gisa, eta Dani Blancok argazki zoragarriekin osatu du liburua.

Liburu eder honek hazien ezagutzan sakondu eta ikuspegi ezberdinetatik autonomia eta herria josteko haziek duten garrantzia eraskusten digu.

Aleka elkarrekin sorreratik dugu elkarlan estua eta hazien munduan lan ezberdinak egiten ditugu elkarrekin. Urriaren 26an Amillubin aurkeztu genuen liburua Zestoako Portale Kultur elkarrekin batera, eta bertan giro ederrean eta albarjini haziak erausten genizkien bitartean, Kelok liburuan jasotako gai ezberdinak azaldu zizkigun, aiez ale!

Opari zoragarri, eskerrik asko!



AGROEKOLOGIA ALDARRIKATZEN

BIOLURREN AGROEKOLOGIA ETA FEMINISMOA UZTARTZEN

Euskal Herrian gorpuzten, konpostatzen ari da feminismotik lurraren defentsan diharduen sarea, Maeztun azaroaren 9an bildutako hainbat kidek parte hartutako jardunaldiek erakutsi duten bezala. Ondorioz, mugimendu feministan **“agroekologia babestea eta sustatzea”** gero eta gehiago entzuten den aldarria da. Beraz uztartu beharreko bi mugimendu direlakoan gaude, bakoitzak bestearengatik ikasteko asko duena.

Norabide honetan, **2024an zehar emakumeentzako* 3 makinaria ikastaro egin ditugu, Bionekazaritzarekin batera antolatuta.** Urte hasieran makinaria eta tresneria txikian oinarrituz, desbrozadora, motozerra eta motokultorearen inguruko ikastaroa egin genuen Amillubin, eta izan zuen arrakasta eta itxaron-zerrenda ikusita, errepikatzea erabaki zen. Eta udatik bueltan, traktore eta aperoen inguruko ikastaroari heldu genion, oraingoan Bergarako Elkoro baserrian. Batean zein bestean, 2 arlo landu ziren: batetik, oinarritzko mekanika eta mantenua; eta, bestetik, erabilera.

Bertan bildutakoek aurretiko esperientzia eta ezagutza ezberdinak izanda ere, bizipen nahiko antzekoak partekatu ziren bertan, eta erabilera eta konfiantza falta nabarmendu ziren. Ez bakarrik makina horiek erabiltzeko zailtasunagatik edo norberaren buruarenganako konfiantza faltagatik. Gehienetan konfiantza faltari dagokionez beste arrazoi hau aipatu zen: emakumeei* eremu hori ukatua izan zaiela eta, makina bat erabili nahi izan denean konfiantza eza kanpotik jaso dela aipatu zen behin baino gehiagotan.

Gauzak aldatzen ari badira ere, oraindik ere arrosa eta urdinean hezitako gizartea gara, lego eta gerran edota panpin eta sukaldean jolasean jarri gaituena. Indarra, mekanika eta “trasteatzeko” ausardirako aukera ez da berdina izaten denentzat, eta mundu horretan sartzeko ahalegin berezia egin behar izaten dute emakumeek*, maiz ukatuak izan zaizkien abileziak garatzeko. Baina ez da bakarrik jakintza

eta abilezi kontua. Orokorrean, nekazal-makinaria ez dago gorputz anitzei begira diseinaturik, eta hor ere oztipoa identifikatu zuten.

Nekazal-lanetan makinariak duen garrantzia kontuan hartuta, horretan trebatzea eta konfiantza hartzea funtsezkoa da eguneroko lanetan autonomia izateko eta gizonekiko menpekotasunik ez izateko. Horretan datza formakuntza-saio horien garrantzia. Beraz, egindako ikastaroek egoera horri buelta emateko bidean pausu bat gehiago izan dira eta argi geratu da horrelako gehiagoren beharra. Emakumeek* agroekologian ere ahalduentzeko espazioak behar dituzte, eta makinariaren erabilera ezinbesteko eremua da.



AGROEKOLOGIA ALDARRIKATZEN

“ELIKATU ALA JAN” TOPAKETAK

Elikadura eskubidea jorratzea eta ikusgarritasuna ematea helburu.

Joan den azaroaren 11 eta 12an Bilbon “Elikatu ala Jan” nazioarteko topaketak gauzatu ziren Bizilur[1] elkartearen eskutik. Biolurrek **Ekoizpen Duina Kontsumo Herrikoaren** proiektuaren lanketa partekatu zuen bertan; eta hainbat irakaspenekin etorri ginen bueltan.

“Elikatu ala Jan” topaketa elikadura eskubidea lantzeko testuinguruaren analitika abiatu zen. Lehen momentutik lurra-elikadura eta zaintzarako eskubideen arteko loturak mahai-gaineratu ziren. Dena den, **teorizazioa baino, esperientzien elkartrukea, tailerrak eta eztabaida eta eraikuntza kolektiboa izan ziren topaketaren oinarria**. 12 herrialde baino gehiagotako pertsonak parte hartu genuen, profil desberdinetakok: agroekologiako ekoizleak, kontsumo elkarteetako kideak eta eragileak, esku-hartze sozialeko elkarteak eta langileak, sindikatuak, unibertsitateak, politika publikoetan eta karitatea edo justizia sozialean jarduten duten eragileak....



[1] Bizilur, lankidetzarako eta herrien garapenerako elkarte da, Bizkaian kokatua dago, baina EHko eta nazioarteko gizarte mugimenduekin elkarlanean jarduten du. Eurak dioten moduan: bizitza eta bere iraunkortasuna erdigunean jartzen ditugu, eta bizitzaren erdigunean elikadura (www.bizilur.eus). “Elikatu ala Jan” topaketen eduki gehiago ere hemen kontsulta daiteke: www.elikatualajan.net.

ELIKADURA ESKUBIDEA?

Elikadura eta nutrizio egokirako eskubidea pertsona guztien eskubidea da, giza eskubideen deklarazio-unibertsalaren 25. artikuluan aitortua.

Euskal Autonomia Erkidegoan 64.765 pertsona zeuden 2022an elikadura pobrezia arazo larri edo oso larriekin (*datuaren iturria: Eusko Jaurlaritzako Euskadiko Pobrezia Modularen Txostena*).

Hezkuntza-, osasun- edota etxebizitza-eskubidea ez bezala, elikadura eta elikagaiak eskuratzeko zailtasuna arazo ikusezina da gure inguruan. Gainera, elikadura ez da eskubide gisa ikusten. Are gutxiago elikadura ekologiko eta osasuntsuaz ari bagara, pertsonen garapen osasungarriko beharrezkoa bada ere.

Izan ere, pobrezia irratia lotutako elikadura datuetan, elikadura biziraupen eta karitate kontua bihurtzen da, kalitate baxuko edo txarreko elikagaien industriako produktuekin, galkorrak ez diren produktuekin eta abarrek tripa betetz; jatea eta elikatzea ez direlako gauza bera. Gaur gaurkoz, karitate- edo elkartasun-erakundeek, elikagai-banku ereduak, Caritasek eta abarrek kontrolatzen dute gero eta gehiago diren pertsona zaurgarrien jatekoa; testuinguru horretan, pertsona pobretuak edo prekarioak subjektu pasiboak dira, zer esan gutxi dutenak eta beren elikadurari buruz erabaki gutxi hartzen dutenak.

AGROEKOLOGIA ALDARRIKATZEN

Lan-taldeka antolatuta, **galdera mamitsuak** izan genituen esku artean: *elikagai agroekologikoa elitista da? zer egin elikadura agroekologikoa jendarte osoak eskuragarri izan dezan? nola bateratu agroekologia eta esku-hartze sozialetako programak? ze elikadura eredu sustatzen dute politika publikoek? nola gainditu elikagai bankuen eredia justizia soziala lantzeko bere osotasunean? zer da "elikagaien gizarte segurantzak"?*



Noski!...ez genituen galdera hauek guztiak erantzun; baina, **ondorioztatu ziren lerro nagusi batzuk** hauexek izan ziren:

- Administrazioako teknikari eta hezitzaileak elikadura burujabetzaren inguruko **formazio eta sentsibilizazio espezifikoak** behar dute, erosketak publiko agroekologikoa sustatzeko.
- Lehen sektorea eta hirugarren sektorearen artean **aliantzak garatu** behar ditugu, lan egiteko aukerak identifikatuz, proiektu bideragarriak sustatuz, martxan dauden proiektuen ezagutzak zabalduz...
- Elikadura eskubidearen aldeko **intzidentzia politikoa** egitea beharrezkoa da, bai tokiko zein maila globaleko espazioetan, datuekin, ezagutzarekin eta ekintzekin.
- Politika publikotik harago, **ekimen komunitarioei begiratzea** proposatu zen, elikadura eskubidea sustatzeko, herri-hezkuntza eta baserri-kultura hedatuz, sareak eta loturak sortuz.

- **Elikadura eskubidea bermatua ez duten kolektibo protagonistei galdetzea** beharrezkoa dela azpimarratu zen, ea zer eta nola nahi duten egin, ez direlako objektuak, nahiz eta gaur gaurkoz estigmatizazioa jasaten duten eta ikusezin diren.
- Pertsona denok **interdependenteak** garen kontzientzia hartzea nabarmendu zen, elikadura burujabetza eta lankidetzak lotuz.
- **Gizarte Segurantzatik ere elikaduraren gaian eragin** behar dela esan zen, unibertsalak eta demokratikoa izan dadin planifikatuz.



Salaketa ere behin baino gehiagotan azpimarratu zen, zenbait herri ekimenek bizitzen ari diren kriminalizazioa eta oztopoz beteriko bidea salatuz. Adibidez, aukera izan genuen Atxuriko **Marmita kolektibo** autogestionatu eta antiarrazistaren eskutik afari bikaina jasotzeko; eta ezagutu genuen ere nola antolatzen diren bortizki ukatzen zaizkien elikadura eskubidea eta bizitza bat eraikitzeke eskubideak borrokatzeke; eurak dioten moduan, **"plater bakoitzaren atzean boterea dago"**. Topaketan ere **Donostiako Kale Afari Solidario**ko kideak egon ziren, komunitatean antolatuta elikadura eskubidea bermatzen ari den ekimena.

Biolurren bidea gizartean elikadura osasuntsua eta nekazaritza ekologikoaren sustapena hedatzea da; denontzako bizitza duinagoak garatzen jarraitzeke bidea.

2024 URTEKO BATZARRA

Uztailaren 13an bildu ginen Biolurkideok urteko batzar nagusia ospatzeko. Aurten Lazkaoko Biziola fabrika izan da zita, eta Goierri eskualdean elikadura burujabetzaren bidean urrats garrantzitsuak ematen ari den proiektua ezagutzeko aukera izan genuen.

Batzarra elkarrearen jardunari lotutako hainbat informazio partekatu eta aurrera begirako urratsak definitzeko espazio garrantzitsua izaten da, eta beti kide gehiago gerturatzea nahi izaten dugun arren, aurten ere talde zabala bildu gara.

Hasiera azken urtean egindako hainbat lan jasotzen dituen bideo batekin eman genion, eta ondoren **2023 urteko egitasmoen lotutako balantze ekonomikoa azaldu genuen.** Hainbat udalek Biolur babesteak ekarri digu ekonomikoki arnas bat.

Bigarren puntua **2024 urteari begirako lan ildoak** eta aurrekontu aurreikuspena landu genituen, eta egun ditugun hainbat proiektutan jarri genuen azpimarra.

Galderak eta ekarpenak jaso ondoren, Biolurrek **AMILLUBI proiektuari eman zion tarte garrantzitsua, egindako lanak, jasotako dirua, eta ibilbidea xehetasunez azalduz.**

Dimentsio handia duen proiektua izanik, ekarpenak jasotzeko **dinamika bat egin zen, HARTU EMAN dinamika;** alegia, proiektuak zer ematen digun eta zer emateko prest gauden jasotzeko helburuz.

Batzarra bukatu ondoren zizka mizka egin, eta bisita egin genuen Intza Barandiararen eskutik BIZIOLA proiektuaren xehetasunak ezagutzeko. Erronka handiko proiektu ederra!

Egun polita izan zen! eta pozik gaude Biolurrera tantaz tanta, baina pertsona eta eragile gehiago batzen doazelako.

Aurreko batzarretik 21 kide gehiago gara! 136 kide ekoizle, 178 kide herritar eta 26 eragile.

HARTU EMAN DINAMIKAN JASOTAKOAK

ZER EMATEN DIGU AMILLUBIK?

- Ilusioa ekoizleei eta gizarteari. Sendotasuna. Talde ezberdinetan errepikatu da.
- Leku erreferente bat izatea (topaketak, formazioa), aberastasuna. Topagunea.
- Ekoizpen komunitario eredu bat sortzeko tokia izan daiteke. Agroekologia unibertsitatea.
- Lurra bizitzeko.
- Esperantza, lan bolondresarekin, kolektiboaren indarra (esperantza, Amillubik Biolur indartzen du). Errepikatzen da esperantzaren idea beste talde batzutan ere. Bibra ona.
- Sektorearen egoera gizarteratzeko baliagarria da.
- Kaletarrek ikasteko leku bat, sektorerako hurbiltzeko, baloratzeko.
- Prozesu kolektiboaren ikasketa.
- Erosketa kolektibo bat egiteko alternatiba edo eredu bat.
- Saretzeko aukera, gizarteratzeko aukera, bai Amillubi, bai Biolur.

ZER EMATEN DIOGU AMILLUBIRI?

- Laguntza ekonomikoa, propioa eta ingurukoena.
- Zabalkundea. Komunikazioan lagundu gure inguruan. Udaletxeetara joateko prestutasuna.
- Auzolanetan parte hartu.
- Etxean iritsi ezinda nabilenean, zailtasuna emateko. "Ez naiz iristen" sentsazioa. Zalantzak zer jaso dudan-zer eman didan, zer eman ahal dudan. Errepikatu da. Zalantzak proiektua definitua ez dagoenean.
- Denbora.
- Ezagutza eta sareak aktibatu izana.
- Ekoizleek zentzua eman ahal diogula Amillubiri. Zer egin Amillubin formazio aldetik, ekoizpen aldetik.







A M I L L U B I L U R R A T A U P A K A





I. BOLETINA

Kaixo Biolurkide:

Urtebete igaro da Amillubi proiektua ezagutzera eman genuenetik. Urtebete honetan oparoa izan da egitasmoak izan duen harrera eta jaso duen babes. Hain zuzen, eskaintzen diguzuen bultzada eskertzeraz dator boletin hau.

Egiten ari garen bidearen eta proiektuaren berri emateko hainbat komunikabide tresna sortu ditugu azken urte honetan; web orrialdea, sare sozialak, telegram kanala, boletina... Baina guk sortutakoez gain, komunikabide askoren laguntza ere izan dugu eta norbanako asko bozgorailu apartak izan zarete.

Herri askotan izan gara proiektua aurkezten, boletoa saldu ditugu, auzolanak egin, txostenak, bilera mordoa, milaka mezu, email, telefono dei Nekea sentitu dugu, talde lanaren zailtasunak bizi izan ditugu, baina gozatu ere gozatu dugu elkarrekin bidean, eta kolektiboan lan egitearen indarraz jabetu gara.

Oso pozik gaude lortu dugunaz eta zerbait ederra egiten ari garen konbentzimendua dugu, lanean jarraitzeko ilusioa eta motibazioa ematen diguna.

Guzti hau posible da Biolur daukagulako!

Eskerrik asko!.

ATE
Amillubiko Talde Eragilea



EKOIZPEN BIDE BERRIAK MARTXAN

Konturatzerako iritsi gara lehendabiziko urteurrenere eta bidean hunkigarria izan da proiektura batu zareten eragile eta norbanakoek erakutsi diguzuen babeseta eta lankidetzarako prestutasuna.

Azkenekoa, iragan den urriaren 26an Amillubin bertan egin genuen 'Haziak' liburuaren aurkezpena eta Aleka elkartearekin dagoeneko Amillubiko lurretan abiatu dugun elkarlan dinamika. Alberjiniak, brokoliak eta baba handia erein/landatu ditugu gure baratzezaintzako haziak bermatzeko.

Ildo beretik, urteurrenarekin batera ekingo diogu Amillubiko soroan gari ereiketari ere, okin-taldearen esperientziaz gune bezala. Eta udasasoirako prestatu genuen porru mintegiak oparo eskaini zizkien baratzezainei 120.000 porru landare Gipuzkoan zeharreko baratzeetan hazten jarraitu dutenak.



AZPIEGITURA HOBETZEN

Hasita gaude baserriaren konponketa lanak aztertzen ere.

Bioeraikuntzan lanean ari diren bi lagunekin batera, baserriaren egituraren hobekuntzak eta dauden aukerak aztertzen hasita gaude.

Horrekin batera, urtebete honetan fitodepurazio sistema instalatu dugu, baserritik doazen ur zikinrentzako depurazio sistema, eta itxiturak eta eremua txukun mantentzeko mantenu lanak egin ditugu.





DIRU-BILKETA KANPAINAREN BALORAZIO POSITIBOA

Urtebete honetan zehar hainbat izan dira diru-bilketa kanpaina markatu duten mugarriak.

Maiatzaren 31ean eman genion amaiera Crowdfunding bidezko diru-bilketa kanpainari eta emaitza izugarria izan zen: 190.805,95 euro biltzea lortu genuen.

Diru-bilketa kanpainarekin batera, eragile desberdinekin lankidetzak akordioak eta auzolan saioak abiatu ditugu urtebete honetan.



100.000€-REN FALTAN ONDASUN KOLEKTIBO IZATEKO

Proiektua ezagutzera eman eta urtebetera, gutxi gorabehera 310.000€-ko kopurura iritsi da diru-bilketa kanpaina.

Baserri eta lurren salmenta-preziotik oso gertu gaude dagoeneko. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak "Onura Publikoko" izendapena ukatu zion Biolurri eta, horren ondorioz, baserriaren prezioari transmissioko zergak gehitu behar zaizkio, baita salerosketa tramiteak dakartzan beste hainbat gastu ere.

Halaber, Amillubin proiektuak martxan jarri ahala gastuak ere sortzen ari zaizkigu.

Beraz, diru-bilketa kanpainak emandakoarekin oso pozik bagaude ere, dirua biltzen jarraitu behar dugu.





PROIEKTU KOLEKTIBOA

KOMUNITATEAN SARETUZ

Eragileen babesa alde batetik, eta herritarrena, bestetik.

Milaka izan zarete bakoitzak bere lekutik proiektuari babesa eman diozuen herritarrak, bai Crowdfunding-ean ekarpena eginda, egon garen azoketara hurbilduz, herrietan egin ditugun aurkezpenetan lagunduz, auzolanetan parte hartuz...

Era batera zein bestera lagundu diguzuen guztioi mila esker!



LURRA TAUPAKA FESTA

PROIEKTUA BERTATIK BERTARA ARNASTEKO

Hain zuzen, crowdfunding kanpainaren azken txanpan, maiatzean, ospatu genuen Amillubin bertan lehendabiziko Lurra Taupaka festa.

Jai giroko egitaraua prestatu genuen herritarrek proiektua bertatik bertara arnasteko asmoz, eta 250 lagun inguru elkartu ginen Amillubiko zelaigune ederrean.





PROIEKTUA EZAGUTZERA EMAN GENUENETIK URTEBETE

Ospakizun egunari auzolanarekin ekin genion. Ongarri berdea erein, brokoli landareen ingurua atxurtu,... eta ospakizunerako ingurua atondu eta salda beroa prestatu. Auzolana bukatuta, patxadaz egoteko tarteia izan genuen, kafe edo trago bat eskutan,... goizaren xedea taldea eta komunitatea elikatzea ere bait baitzen. Eta segidan ekitaldiari ekin genion.

Libe Goenaga eta Julen Zulaikak bertsotan lagunduta, Amillubiren sorrera eta gaur egunera arteko ibilbidea eta aurrera begirako erronkak izan genituen aipagai. Halaber, Amillubi ez da Amillibia baserrian martxan jartzen den lehenengo proiektua eta ekoizpena eta, beraz, inguru horri lehenago bizitza eman diotenei aipamen eta aitortza eman nahi genien. Baserriko aurreko bizilagunak, Natik, sukalde aurreko ingurunea kuttuna zuen, loreen koloreekin zainduta eta alaituta, eta hala eman nahi izan genion jarraipena guk ere. Baserrian zegoen goldea zaharberritu, eta horren inguruan lore eta bulboak landatu genituen.

Egunari amaiera emateko, jan-edanaren bueltan berriz ere informalki elkartzeko aukera izan genuen, giro ederrean. Pozik itxi genuen eguna. 40 lagun inguru elkartu ginen, giro onean, eta etorritako guztiei eskertuta joan ginen etxera, goizean zehar egindako lanari esker beste astindu polita eman baikenion Amillubiko lurrari eta proiektuari.





HERRITAR ETA ERAGILEZ INGURATUTA EGIN GENION BIDEARI

Nork esango zuen duela urtebete, abendu hasieran hartan, proiektua ezagutzera eman genuen momentu haietan, urtebete horrelako uzta jasoko genuenik?

2023ko abenduaren 1ean aurkeztu genuen Amillubi proiektua Azpeitiko azoka plazan eta handik bi astera Durangoko azokaren plazatik zabaldu genuen lau haizetara.

Bi ekimenetan, herritar eta eragilez inguratuta ekin genion bideari.

Eta boletín honetan laburbildu nahi izan ditugu abiatu dugun ibilbide honen lehendabiziko urratsak; herritarrek elikagaiak eta nekazariek lurrak izan ditzaten Gipuzkoako Urola eskualdean abiatu den proiektu kolektibo honetatik jaso ditugun lehendabiziko fruituak.



